



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2008-07-12**

VIURTEA 1.484.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Lazaro Zabala Leitzako udaletxearen teilatuan, herenegun. N. GARZIA


UDALETXEAREN PUNTAN ERLOJU BERRIA, ORDUAK ADIERAZTEKO PUNTUAN

LEITZA Erloju berriaren esfera jartzen egon dira udaletxearen teilatuan; argiak jarri dizkiote barruan, gauez ere ikusi ahal izateko 7

ARITZ IGLESIAS DANTZARIA

«Dantza tradizionala beste ikuskizun garaikideen oinarria da»

TOLOSA Gipuzkoako Aurreku Txapelketan bigarren postua lortu berri du tolosarrak 3



A. OTERMIN

Asteartetik igandera Karmen jaietan murgildurik

ALEGIA Berrikuntzen artean konpartsa herrikoia izango da; Anttonita Iriartek botako du suziria 5



Alurr Dantza Taldeko dantzariak Eslobeniako jaialdian. HITZA

Harrera «oso ona» izan dute Alurreko kideek Eslobenian

IBARRA Maribor hirian izan den Lent Festibalean aritu dira; «esperientzia aberasgarria izan da» 6

Herriko hainbat datu esanguratsu guztion eskura

VILLABONA Udalak 'Villabona zenbakitan' izeneko liburua argitaratu du; doan lortu daiteke 2



Maialen Abaigar eta Amaia Elizagarate atzo, aurkezpen ekitaldian. E. EZEIZA

Herriaren zenbait datu denen eskura

Villabona » 'Villabona zenbakitan' izeneko liburua argitaratu du Udalak, eta herritarrek dohainik eskuratu ahal izango dute.

ESTI EZEIZA

Informazioaren aroan, urrats berri bat eman du Villabonak. Honen adierazgarri, atzo aurkeztu zuten *Villabona zenbakitan* izeneko liburua, Maialen Abaigar, Euskara eta Hezkuntza zinegotziak eta Amaia Elizagarate, Aztiker enpresako teknikariak. Izan ere, azken hauek arduratu dira argitalpena burutzeko.

Liburu hau, herria gertuagotik ezagutzeko informazio tresna izatea nahi dute Udalekoek. Hori dela eta, herritar guztien eskura jarriko dute. Honetarako, edonork Udalen bulegoetan eskatuta, dohainik eskuratu ahal izango du.

Liburuxkaren izenak beran dioten bezala, herriari buruzko hainbat datu estatistiko agertzen dira bertan. Villabonatik abiatuz, datu hauek Tolosaldean, Gipuzkoan, Euskal Herrian, Europan eta mundu mailan ematen direnekin alderatuta agertzen dira. Jendeak,

barnean gordetzen diren esanahiak egokiago eta sakonago ulertzeko. Amaia Elizagaratek azaldukoaren arabera «herri batentzat oso garrantzitsua da bere inguruko datuak jakitea, eta taula gordinak eman beharrean, modu honetan, ulergarriago eta landuago agertzen da dena». Gainera, argazkiak eta erabiliz, modu erakargarroan ageri da informazioa.

Zenbait datu interesgarri

Villabona zenbakitan liburua zazpi ataletan banatua dago: biztanleak lurraldean, jaiotzak eta heriotzak, adin eta sexu osaketa, sektore ekonomikoak, etxebizitza, euskara eta hezkuntza.

Liburuxkan agertzen diren datuen artean hainbat aipagarriak dira. Euskarari dagokionean, bi urte baino gehiagoko hiztunen bi herenek (%67,5) dakite euskaraz, 2001. urteko datuen arabera. Eskualdeko datuak erreparatuz gero berriz, ikus daiteke, orohar %71,7a da euskalduna. Gipuzkoan aldiz %51,5a eta Euskal Herrian, %27,6a. Gainera, maila apalean bada ere, Villabonan euskaldunen kopuruak azken urteotan gora egin du eta euskara da billabonatar erdiaren ama hizkuntza.

Gaurtik aurrera informazio guztia euskaraz zabalduko du Udalak

Anoeta » Hizkuntz eskubidea errespetatzea eta elebitasunak sortzen duen lan karga ekiditea dira egitasmo honen helburuak.

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak euskararen aldeko neurri berriak hartu ditu Udalen zereginetarako. Ondorioz, herritarrei begirako zereginetan aldaketa batzuk izango dira; besteak beste, bandoak, kaleko oharrak, udal argitalpenak eta etxeetarako mezuak euskaraz izango dira. Neurri berrien helburuak elebitasunak sortzen duen lan karga arintzea eta denon hizkuntz eskubideak errespetatzea dira.

Neurri horiek bi faktoreen ondorio dira, nagusiki: Anoetako herritarrengan euskaraz geroz eta

presentzia handiagoa izatea (eskolan, kalean, lan munduan, merkataritzan...) eta Udalak azken hamarkadan euskararen alde hartutako erabakiek jorratutako bidea.

Herritarrei dagokienez, euskararen erabilera eta ezagutza handituz doaz Anoetan, eta horren adierazgarri dira euskararen kale erabilerean neurketan euskaraz gora egitea, seme-alaba guztientzat eskola eredu euskalduna aukeratzeko, kultur ekintzetan euskarari lehentasuna ematea, herriko dendetan eta enpresetan euskaraz gero eta toki handiagoa izatea, erakunde publikoetan euskararen aldeko neurriak sustatzea...

Anoetako Udalak euskararen alde egindako ibilbideari dagokionez, aspaldi hasi zen euskararekiko konpromisoak hartzen: 1999an Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartu zen, 2001ean

Euskararen Erabilera Plana onartu zen, urte asko dira diru laguntzak bideratzen dituela euskararen ikasten ari diren herritarrentzat...

Horregatik guztiagatik, euskararen alde beste aurrerapauso bat eman nahian, Udalen zereginetan euskarari presentzia handiagoa eman nahi dio Anoetako Udalak. Azken batean, Udalaren eta anoetarren izaera euskaldunarekin koherenteagoak izatea nahi da; hau da, euskaraz udal zereginetan ere beste esparru batzuetan duen pareko garrantzia izatea.

Neurri berrien ondorioz, herritar batek euskarazko idatzia behar bezala ulertzen ez bada, Anoetako Udalak behar adinako laguntza emango dio: udaletxean, langileek agiriaren gaineko argibideak emango dizkiote, eta, hori nahikoa ez bada, herritarrek beti izango du aukera itzulpena eskatzeko.

Lain musika taldearen kontzertua izango da gaur gauean Frontonen

Tolosa » 23:00etan hasiko da kontzertua, eta euren musika ezagutzera emango du Villabonako boskote honek.

ERREDAKZIOA

Gaur 23:00etan, Lain musika talde billabonatarren kontzertua izango da Fronton kafetegian.

Aurtengo urtearen hasieran sortutako musika talde gaztea da hau. Bi abeslariak, hau da, Kristina Aranzabe eta Leire Berasaluzek, Gipuzkoako Kantu Txapelketan publikoaren saria irabazi zuten. Aurrerago, taldea sortu zen eta kontzertu ugari ematen hasi ziren. Hala, gustatzen zitzaiena egitea, eta jendeari hau zabaltzea lortu dute. Bestalde, beraiek esan bezala, «ikusit zuten diru iturri ona ere izan zitekeela festetan jotzea eta diru pixka bat ateratzea». Gero ho-



Lain taldeko kideak. I. GARCIA

nekin, materiala eta garraioa ordaindu ahal izateko. Honenbestez duela gutxi hasi den talde bat bada ere, «ilusioz beteriko boskotea» osatzen dute Lainekoek.

Aipatu bezala Villabonako boskote musikaririk osatzen dute talde gazte

hau. Jon Altuna eta Imanol Urkola dira gitarrak joleak; Javi Rivero, baxu jotzailea; gitarran ere, eta ahotsean, Kristina Aranzabe aritzen da. Azkenik, gitarrarekin baita, eta ahotsean, Leire Berasaluz aritzen da.

Hilberria

JOXE LEGORBURU ETXEBESTE

(Herenegun hil zen, Pasai Donibanen)

Joan zara,
baina gure
artean izango
zaitugu beti



PASAI
DONIBANEN
2008ko
uztailaren 12a

Zure familia

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

E Elkarrizketa

ARITZ IGLESIAS › Dantzaria



A. OTERMIN

«Dantza tradizionala da beste ikuskizun garaikideen oinarria»

Tolosa » Txapelketa batera baino gehiagotara aurkeztu ondoren, bigarren postua lortu du aurten Gipuzkoako Aurreku Txapelketan.

ARRATE OTERMIN

Lehenengo urtean hirugarren postua erdietsi ondoren, aurtengo Gipuzkoako Aurreku Txapelketan bigarren geratu da Aritz Iglesias (Tolosa, 1986). Bederatzi dantzari lehiatu ziren pasa den maiatzaren 31n. Honako txapelketa hau, orain 28 urte sortu zen, eta Aritz bertan izan da azken urteetako saioetan. Gure inguruan sona handiko dantzaria da, San Joan jaietan ere protagonista izan da, eta bere aurpegia ikusi ahal izan dugu.

Noiz hasi zinen dantzan?

Oso umetan hasi nintzen dantzan, bost bat urterekin-edo. Amaren lehengusu bat ibiltzen zen horretan, eta horretatik-edo hari segika, umetan hasi nintzen; eta orain arte. Udaberri dantza taldean ikasi nintuen lehen dantza pausoak, eta bertan jarraitzen dut oraindik ere. Hala ere, azken urte hauetan, Villabonako Oinkari dantza taldean gauza berriak probatzen ari naiz.

Txapelketetara aurkezten hasteko kontua...

Hemen Tolosa inguruan baina, txapelketetara joateko oihutua handiago dago Donostia inguruko herrietan. Lezon eta Errenterian,

esaterako, bertako haurrek txapelketetan parte hartzen oso gazterik hasten dira; hemen inguruan ez da horrelakorik, ordea. Udaberri Dantza Taldeak ez du inoiz dantzari eraman txapelketara, baina orain urte batzuk, dantzari batzuk joan ziren Aurreku Txapelketara protesta egitera. Izan ere, Donostiako eta Tolosako herrietan, dantza bera, desberdin dantzatzeko da, eta txapelketan, aldi berean alde batera utzi-eta, Donostiako era bakarrik hartzen zuten kontuan. Horrekin ados ez, eta protesta egitera joan ziren Udaberriko dantzari batzuk.

Tolosatik-edo zenbat parte hartzaile izan zineten aurtengo txapelketatan?
Aurten hemendik ni bakarrik joan naiz. Aurreko urteetan Tolosako dantzari gehiago izan ziren. Hasiera batean ez nuen aurten txapelketara aurkezteko asmorik; Udaberri elkarrekin gabe geratu ginen, eta ez nuen entsaiatzeko lekurik. Azkenean, beroaldi baten ondoren, izena eman, eta bi astez ahal nuen moduan entsaiatu ondoren, gauzak ongi aterazkit.

Zein frogan izan zenituen?

Gipuzkoako Aurreku Txapelketa

honek, bi zati-edo ditu. Orain hiru urte arte, lehenengo zatian, *Agurra* eta *Azeri Dantza* dantzatzeko ziren, eta bigarren zatian, berriz, *Desafioa* eta bakoitzak nahi zuten *Zortzikoa*. Baina sistema hau oso luze eta aspergarri egiten zitzaion ikusleari. Eta jendea animatu asmoz, aldaketa batzuk egin zituzten. Orain, *Ormatxulo* dantzatzeko da lehenik, *Azeri dantza*, ondoren, *Agurra*, segidan, eta *Desafioa* eta *Zortzikoa*, azkenik. Dantza guztiak puntuatzen dira, eta gehien puntuatzen dena, *Zortzikoa* da. Desafioan, zure bikoteak egiten duenak, zer esan handia du. Bikoteak zozketa bidez ezartzen dira.

Oso urduri ater nintzen taula gainera; lehenengo frogan akats batzuk egin nituela uste nuen

Ez da aukera handirik izaten taula gainera ateratu aurretik zure bikotearekin entsaiatzeko. Frogaren aurretik, sarrera eta irteera bezalako adosten dira, eta segidan, taula gainera. Orain ezarria dagoen Txapelketa sistema hau askoz gehiago gustatzen zait, aukera baitauek dantzariok, oihalaren atzean elkarrekin egoteko. Lasaia gozatu, elkarrekin taula gainera bizitakoaz eta egindakoaz hitz egiteko aukera daukagu; eta hori oso polita da niretzat. Lehen, dantza-

tzeko bakarrik altxatzen ginen, eta dantza saioa bukatu ondoren, berriro lekura.

Denbora asko eskaintzen diozu dantzari?

Urte osoan zehar ibiltzen naiz dantza taldean bat prestatu eta bestea dantzatu. Astean hirutan Udaberri entsaiatzen dut, eta astean behin Villabonara joaten naiz, Oinkariokekin aritzera. Behin Aste Santutik aurrera, ordura arte libre nuen asteko egun hori ere dantzarako enplegatzen dut. Sanjoanetarako prestatzen. Larunbatean, berriz, dantza ikastaroak eskaintzen ditugu. Batean ez bada, bestean, erabat dantza.

Txapelketa intentzio osoz prestatzen duzu?

Ez dut prestaketa berezirik egiten txapelketetara joan aurretik; astean zehar egunero dantza saioak izaten baititut. Txapelketara joan aurretik prestaketa saio batzuk egiten ditut, pauso berriren bat sartu, beste zerbait moldatu... Aurreko urteetan gehiago prestatu naiz txapelketetarako, baina aurten aretoan gabe nintzen eta ez dut nahi adina aritzeko modurik izan; horri gehitu behar zaio, txapelketa azterketa garaian izan dela, eta denbora gutxi izan dut.

Txapelketara helburu jakin batekin joan zinen?

Txapelketara aurkeztu nintzen lehenengo urtean, aurkezteagatik aurkeztu nintzen, proba moduan.

Buruan gauza bakarra nuen, azkena ez geratzea. Hamar parte-hartzaileetatik, zortzigarren geratu nintzen. Hurrengo urtean, dantzari batzuk falta ziren, ez ziren aurkeztu. Hori jakinda, posturen bat aurreratzeko, edota aurreko urtean nire atzean geratu zirenek ez aurreratzeko asmoz joan nintzen. Orduan ere, oso gustura geratu nintzen bosgarren postuarekin. Hurrengoan, berriz, aurreko urtean baino postu hobea lortu nahi nuen, eta ongi joan zen: ez nuen es-

Bigarren postu honekin nire buruarekin kunplitu dut; maila oso ona dago dantzarien artean

pero, baina hirugarren geratu nintzen. Aurten, txapelketan, dantzari oso onak zirela jakin, banekien, eta ez negoen nire buruaz oso ziur. Oso nerbioa ateratzen nintzen taula gainera. Lehenengo dantzaren ondoren, akats batzuk egin nitueneko bihozkada nuen, baina gerora bideoak ikusten-eta egon naiz, eta ez da bertan ezer ikusten. Nire sentsazioak ziren. Azkenean, bigarren postuarekin etxera, eta oso pozik eta gustura.

Hurrengo urteari begira?

Tentazioa izan, badut. Baina oso zail dut lehen postua lortzea, ezinezkoa dela ez esateagatik. Oso maila altua dago, euskal dantza munduan goi mailako dantzariak ditugu. Bigarren postutik gora geratzea oso zaila ikusten dut, eta nire buruari esana dio, lortutako aukerak kunplitu dudala.

Kukai bezalako dantza taldeek bestelako dantza erakusten dituzte taulatu gainean...

Bai, dantza beste begi batzuekin ikusteko aukera ematen dute. Niri gustatzen zait, baina gustogorago Udaberri egiten dudanarekin. Dantza tradizionala dantzatzeko dugu, eta oso gustuko dut bertan egiten dudana. Hala ere, gauzak probatzea gustatzen zait, eta Oinkarin egiten dudanarekin ere ongi sentitzen naiz; bertan, tradizionalatik piska bat ateratzen gara. Tradizionalarekin aritu-eta gauza berriak probatuz gustura nabil, kontrarioki ezin egingo nuke: dantza tradizionala alde batera utzi, eta beste zerbait aritu, esan nahi dut.

Ondorioz, badu dantza tradizionalak galtzeko arriskurik?

Jendea oso erakartzen du dantza era berriek. Argiaki eta aretoak oso tentagarriak dira, batez ere, dantza asko ez dakitenentzat. Baina borroka handia dago horretan. Tradizionalari eutsi nahi dion jende asko dago, eta egia esan, dantza tradizionalik gabe, ez dago beste-rik sortzerik; ezer sortzekotan, ez litzateke euskal dantza izango. Dantza tradizionalaren barruan jendearentzat ezezagun diren dantza asko dago, eta nik horiek asko gozatzen dut.



Mintzalaguna egitasmoan eta euskara ikastaroetan parte hartu zutenei bi udalek afaria eskani zieten. HITZA

Villabonako eta Zizurkilgo udalek Mintzalaguna proiektua jarri zuten martxan iragan berri den ikasturtean eta balorazio «ona» egin dute. Guztira 17 ikasleak eta zortzi laguntzaileak parte hartu dute.

Erabiltzea da kontua

IMANOL GARCIA

Mintzalaguna egitasmoa jarri dute martxan pasatu berri den ikasturtean Villabonako eta Zizurkilgo udalek. Proiektuaren arduraria izan duten Joxean Cubero Villabonako euskara teknikariak eta Ainhoa Larrea Zizurkilgo euskara teknikariak «balorazio positiboa» egin dute, bai jende kopuruarengatik, bai parte hartu dutenek egin duten balorazioaren aldetik.

Zortzi talde egin ziren guztira, gehienbat hiru lagunek osatuta. 17 ikasleak eta zortzi laguntzaileak hartu dute parte egitasmoan. Udaletatik bideratu den inkesta batean ondorioztatu denez, bai ikasleek, bai laguntzaileek, bai euskara ikasten ari diren irakasleen balorazioa ere positiboa izan da. Erabileraren arrereko jarrera ere oso positiboa izan dela azaldu da inkestetan eta dato-

ren ikasturteari begira, parte-hartzaileek jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute.

Parte-hartzaileek emandako erantzunekin egin den azterketari dagokionez, esan bezala, balorazio ona izan da. Joxean Cuberok azaldu duenez, «emaitza ideala izango litzateke jarreraren pauso bat eman duela eta ikasleak euskaraz egiten duela ez mintzalagunekin bakarrik, kalean ere bai. Emaitza ideal hori ez da eman, baina orokorrean jarrera ona izan da». Egitasmoari pixkanaka bere bidea egitea falta zaio. «Eremu itxi batean bizi gara», dio Cuberok, «eta proiektu honek balio izan du ere mintzalaguna kalean topatuz gero, horiekin behintzat euskaraz egingo dutela. Orain zirkulu hori zabaltzen joan behar da».

Ikasle bezala izena eman dutenak euskaldun berriak dira eta ba-

tez ere 30 eta 50 urte inguru bitartekoak. Gehienbat emakumeak izan dira parte hartu dutenak, bai ikasle bai laguntzaile bezala. Ikasle gehienak momentu horretan euskara ikasten ari zirenak ziren eta horrez gain beste garai batean euskara ikasten aritutakoek ere parte hartu dute.

Taldeak astean behin elkartzen ziren, ordubetez edo ordu eta erdiz. Urrian edo azaroan hasi ziren eta ekaina arte jarraitu zuten. Elkartzeko moduak ezberdinak izan dira: kafetegietan, pasiatzen, erosketak egiteko aprobetxatuz...

Datorren ikasturtean izena emateko aukera urrian Ikasturteari amaiera emateko aharri bat egin zuten. Bertan, Mintzalagunaren parte hartu zutenek gain, Villabonako eta Zizurkilgo euskalduntze eta alfabetatze ikastaroe-

tan parte hartu dutenak bildu ziren.

Aurrera begira, egitasmoan norbait gehiago interesatua baldin badago, izena emateko aukera izango du. Urria inguruan zabalduko dute izen ematea, euskara ikastaroetan ikasleak egonkortuta daudenean. Urrian zehar taldeak egingo dituzte eta ondoren azaroan hasiko dira elkartzen.

Protagonistek dagokionez, Rosa Ulazia izan da laguntzaile bezala aritu denetako bat eta Jone Rodriguez ikasle moduan. Ulaziak azaltzen duenez, Udaletik jaso zuen eskutitza, proiektua martxan jaritzeko asmoa zutela esanez, eta «animatu egin nintzen bilerara joaten eta izena ematera». Ulaziak ezustekoa hartu zuen bere taldeko bi ikasleak zein ziren jakitean, horietako bat Jone Rodriguez. «Ez nuen pentsatzen euskaraz egiten

zutenik», dio Ulaziak eta gaineratu: «Oso jarrera positiboa izan dute. Biak hitz egiteko gogo handiarekin izan dira eta ondo konektatu dugu pertsonalki».

Ez da sentitu Ulazia irakaslearen paperan. «Nik asko uzten nien hitz egiten. Beraiek konturatzen ziren esaldi bat ondo ez bazuten esaten», dio. «Txikitatik egin dut euskaraz eta beraiek kaleko euskara entzun nahi zuten. Esaterako, aditzak niri automatikoki ateratzen zaizkit eta batzuetan beraiek erakusten zidaten zein aditz erabili». Berriketarako gaiak ere ez zaizkie falta: haurrak, telebista, herriko albisteak... «Ni hiztuna naiz eta, beraz, hitz egiteko araririk ez dut izaten», azaltzen du Ulaziak.

Bere aldetik, Jone Rodriguezek azaldu duenez, «ondo iruditu zait martxan jarri den proiektua. Egia esan astean bi aldiz ere geldituko nintzen hitz egiteko, ondo etorriko litzaidalako». Rodriguezek gaineratzen duenez, «behin konfiantza hartzen dudanean, hitz egitea errazago egiten zait».

Gironan jaio zen Rodriguez eta bederatzi urterekin Villabonara joan zen bizitzera. «Haurrei ahal dutenean euskaraz hitz egiteko esaten diet. Ulertzeko gai naiz, eta saiatzen naiz euskara egiten, baina ez da erraza izaten».

Garbi dago gustura aritzen zirela taldekoak, oporretan ere hitzordua egitekotan baitira euskaraz aritzeko. Jakina denez, hizkuntza bat ikasteko, erabili egin behar da.

Euskara ikastaroak

Villabonako eta Zizurkilgo, urtero bezala, euskara ikastaroak egin dira ere bukatu berri den ikasturtean. Hiru talde izan dira euskalduntze ikastaroetan. Horietako bat Zizurkilgo Kultur Etxean elkartzen ziren, maila baxuagoa zutenak. Pixka bat aurreratuago zeudenak, Villabonako Loatzo musika eskolan (lehengo Kultur Etxea) elkartu dira.

Hirugarren taldea Pedro Mari Otaño eskolako guraso batzuk sortutakoa izan da. Eskola bertan hartu dituzte klaseak. Ainhoa Larreak azaldu duenez, «oso positiboa iruditzen zaigu guraso talde hori sortu izana».

Bestalde, Zizurkilgo Goian alfabetatzeko talde bat ere osatu da, hau da, euskaldunak direnak, baina hizkuntza gramatikalki landu ez dutenak.

5 ALBI
ALTZARIAK

Bi ohe + lau kajoiko
oherik baxuena

Garzia Goldaraz - I. HERNANI - Tel. 943 557 154 - Fax: 943 552 082 - mueblesalbi@euskalnet.net

Tolosaldeko komunikabide batek
**Kazetaritzan edota
Euskal Filologian
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **661 67 88 17** telefono zenbakira

Karmen jaiak asteartean hasiko dira, berrikuntzen artean konpartsa izanik

Alegia » Anttonita Iriartek botako du txupinazoa. Gazte Asanbladak aurtan Bibalabirjen bandera berreskuratu du.

NEREA URBIZU

Alegiako Karmenak atejoka ia: aurretik motorrak berotzen hasi dira herrian, asteburuan zehar V. Zerbeza Feria dutelako. Ez dute indarrik alferrik galduko, bietaz gozatu nahiko baitute. Asteartean arratsaldean helduko diete Karmen jaietako egitarau ofizialari dagokionez behintzat. Festa alternatiboak berri, asteazkenean hasiko dira, eta bi egitarauetako azken ekitaldiak hilaren 20an izango dira.

Txupinazoa, Anttonita Iriartek Aurtan festetako txupinazoa Anttonita Iriarte Alegiako odol emaleen sortzaileak botako du. Txintxarriaren igoera azken hiru urtee-



Sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin ere izango da aurtan, hilaren 19an. Irudian, iazko une batean. N. U.

tan «arrazoi bereziengatik, herriko pertsonai edo taldeek bota dute txupinazoa: duela bi urte Intxurre futbol taldea izan zen, iaz Joxe Gastesi eta aurtan Anttonita Iriarte», festa batzordeak argitu bezala.

Azken finean, omenaldi modukoa da.

Aurtengo berritasunen artean konpartsa herrikoia dago (asteazkenean). Bertan 30 herritar inguruk hartuko dute parte. «Lantzeko

inauterietako janzkerarekin aterako dira, eta baita aurpegia estalita ere». Txarangarekin batera kaleetan zehar ibiliko dira eta bi dantza ikasi dituzte bereziki tartean dantzatzeko. Plazan egingo dute eki-

taldia. «Azken finean, arratsalde pasa bat da».

Bielorrusiako dantza taldearen emanaldia berezia izango da ere. Festetako azken egunean izango da plazan. Asteartean, aldiz, beste kontzertu bikaina antolatuko dute: Ruper Ordorika entzuteko aukera izango da plazan, 00:00etan.

Bibalabirjen bandera berreskuratu dute

Festa alternatiboaren egitarauaren baitan aurtan Bibalabirjen bandera berreskuratu dute: hirugarren aldiz izango da. Alegiako Gazte Asanbladak duela 10 urte baino gehiago bigarren aldiz egin zutela gogoratu du. Dirudienez, Kaleberako festetan egin zuten. «Orian ariko dira ontziak: flotatzen duen edozein itxurako ontziak aterako dira eta lasterketa moduan ariko dira. Dena den, egunaren arabera izango da, urak ere baldintzatzen du ekitaldia». Alegiako zubi batek beste zubira izango da.

Bibalabirjen izena Karmen jaientatik hartu zuten garai batean, eta hori ere mantendu egin dute.

Bestealde, hilaren 15eko arratsaldetik hilaren 21era bitarte autobus geldidune bakarria izango da herrian, Larraitz auzokoa, alegia.

» EGITARAUAK

EGITARAU OFIZIALA

Uztailak 15, asteartea

- **17:30.** Udaletxeko arkupeetan kartel lehiaketako parte hartzaileen marrazkien erakusketa.
- **17:30.** Ordiziako ernaldi eta buruhandien eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira Larraitz auzotik plazara ino.
- **18:00.** *Euskal Presoak Euskal Herria* lelopean elkarretaratzera udaletxean eta ikurra jartzea.
- **18:00.** Txupinazoa. Anttonita Iriarte Alegiako odol emaleen sortzailearen eskutik eta Txintxarriaren igoera, jaien hasiera iragartzeko.
- **19:45.** *Salbea* Txintxarri Abesbatzaren eskutik.
- **20:00.** Txintxarri txiki eta Txintxarriaren kontzertua elizan.
- **21:00.** Afaria, zahagiardoa, plazan.
- **22:30.** Alurr dantza taldearen emanaldia pilotalekuan.
- **00:00.** Ruper Ordorika plazan (euria eginez gero Kultur Etxean).

Uztailak 16, asteazkena

- **09:00.** Herriko txistularien eta trikitilarien diana.
- **09:30.** Giroarte dultzaina taldeak alaitutako diana.
- **11:15.** Meza nagusia.
- **12:30.** Alegiako dantzarien emanaldia herriko plazan.
- **12:30.** Los incansables txaranga.
- **16:30.** 7e pasa Pilota txapelketako finalak frontoian. Banaka: Aritz Artola eta Garikoitz Zubillaga. Binaka: Iriarte eta Zubeldia eta Zubillaga eta Garmendia.
- **17:30.** Konpartsa Herrikoia.

- **22:30.** Konpartsa herrikoiaeren emanaldia plazan.

Uztailak 17, osteguna

- **09:00.** Herriko txistularien eta trikitilarien diana.
- **10:00-14:00.** Haur parkea Larraitz auzoko plazan.
- **13:00.** Apar Festa eskolako patioan.
- **17:00.** Haur jaialdia herriko plazan. Merienda eta jokuak.
- **19:00.** Umeen Santos Torneoko futbol txiki finala.
- **19:00.** Loatzo musika eskolako ikasleek kalejira.
- **22:30.** Bertsolariak zinean: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia eta Aitzol Barandiaran. Gai-jartzailea: Iker Iriarte.
- **00:00.** Tapia eta Leturia taldearekin dantzaldia.

Uztailak 18, ostirala

- **09:00.** Herriko txistulari eta trikitilarien diana.
- **09:00.** Jubilatuek antolatutako mendi martxa.
- **11:00.** Jubilatuentzat hamaiketakoa.
- **Ondoren.** Bertsolariak plazan: Imanol Lazkano eta Amaia Agirre.
- **17:30.** Umeentzat artzainen jokuak Kulk taldearen eskutik, eskolako patioan.
- **18:00.** Jubilatuen patata tortilla txapelketa.
- **19:00.** Sagardo kupela plazan.
- **21:00.** Txekor-jatea plazan.
- **23:00.** Dantzaldia Drindotsekin.

Uztailak 19, larunbata

- **09:00.** Arrantza lehiaketa Orián 6 eta 14 urteko lehiakideentzat.

- **09:00.** Herriko txistulari eta trikitilarien diana.
- **09:30.** Giroarte dultzaina taldeak alaitutako diana.
- **12:00.** Sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin.
- **12:00.** Asier Unsain eta Irma Karrerarekin trikitixa plazan.
- **18:00.** Herri kirolak Larraitzen. Harrijasotzaileen III. Txintxarri saria: Goenatxo II eta Eizmendi; Izeta III eta Izeta IV, Ostolaza eta Telleria.

Harriak: 100 kiloko bola, 113 kiloko kubikoa eta 125 kiloko kopa.

- **Ondoren.** Gipuzkoako Ingude-altxatze Txapelketa (5 lehiakide).
- **21:00.** Zahagiardoa. Ardoa gaztetxeak, postrea Udalak eta ogia norberak eraman behar du.
- **22:30.** Pilota partidak: -Afizionatuak: Renobales-Gurru-txaga eta Onsalo-Galarraga -Profesionalak: Chafee-Argote eta Olaetxea-Peñagarikano.
- **00:00-05:00.** Makro diskoteka plazan.

Uztailak 20, igandea

- **09:00.** Giroarte dultzaina taldeak alaitutako diana.
- **09:30.** Kalejira berezia, lehengo eta oraingo herriko txistulariekin.
- **11:00.** Intxurre Pilota Eskolako partidak. -Benjaminak: Gorka Altuna-Aratz Irazustabarrena eta Jon Lezea-Ander Zubillaga. -Alebinak: Ander Garin eta Alex Goikoetxea / Unai Mendizabal eta Haritz Zabala. -Infantilak: Adur Murua-Iñigo Ormazabal eta Iñaki Arandia-Iñaki Landa. -Kadeteak: Iñaki Artola-Beñat

- Zabala eta Beñat Urretabizkaia-Joseba Gallurralde.
- **12:30.** Iñaki Dieguez Quartet taldearen kontzertua plazan.
- **19:30.** Bielly Rosi Bielorrusiako dantza taldea plazan.
- **23:00-03:00.** Dantzaldia Trakets taldearekin.
- **00:00.** Txintxarriaren erreketak Elena Zubillagak eta Mirari Mendizabalek alaiturik.

FESTA ALTERNATIBOAK

Uztailak 16, asteazkena

- **19:00.** Txupinazoa, zuziriarekin sagardo probaketa.
- **Ondoren.** Zahagiardoa.
- **Gauean.** Trikitixa Laketekin.

Uztailak 17, osteguna

- **Arratsaldean.** III. Bibalabirjen bandera.
- **Iluntzean.** Zahagiardoa.
- **Gauean.** Herriko DJak.

Uztailak 18, ostirala

- **14:30.** Herri bazkaria.
- **Iluntzean.** Mulanborekin poteoa.
- **20:30.** Zahagiardoa.
- **14:30.** Gas (su malabarak).
- **Gauean.** Kontzertuak: Puto punki, Raperos de Emaus, MAK (Musika Armatu Komandoa).
- **Ondoren.** DJak.

BELAUNTZAKO OSTATUA berriro ere zabalik

- PLATER KONBINATUAK
 - EGUNEKO MEZUA
 - KARTA (aurrez eskatuta)
- 943 670928**

Uztailak 19, larunbata

- **Arratsaldean.** Resaka pasa.
- **Iluntzean.** Zahagiardoa.
- **Gauean.** Kontzertuak: Besugo, Mig wai, Las perras del barrancet.

Uztailak 20, igandea

- **Iluntzean.** Zahagiardoa.
- **23:00.** Herriko bertsolariak.
- **Gauean.** Kontzertuak: Rhino, Evilcode eta Señor no.



Sei hilabetetarako lentila eta likidoak 89€

Kale Berria 23A
Villabona
Tel.: 943 11 18 40



Maribor hirian egin den Lent Festibalean Alurr Dantza Taldeko dantzariak ezpata dantzarako prest. HITZA

Esperientzia «aberasgarria» izan du Alurrek Eslobenian egin duen egonaldian

Ibarra » Maribor hirian egin den Lent Festibalean parte hartu dute Ibarako dantzari eta musikariek egun hauetan.

ona izan zuten. Erritmo bizia azpimarratu zuten denek».

Bestalde, Alurr Dantza Taldeko gazteek beste nazioarteko gazteekin izan duten harremana azpimarratzeko da. «Denak bertako dan-

tza tradizioaletako bat ikasteko eta elkarrekin dantzatzeko aukera izan zuten. Oso esperientzia aberasgarria izan dela denontzako esan beharra dago, nahiz eta esfortzu handia eskatu duen».

ASIER IMAZ

Ibarako Alurr Dantza Taldeko kideak ekainaren 27an Maribor-era (Eslobenia) abiatu ziren Ibaratik autobusean. Bertan, uztailearen lehen aurrerera Lent Festibalean parte hartu dute, beste nazioarteko dantza taldeekin batera. Besteak beste, Hungaria, Kroazia, Txekia, Israel eta Esloveniako taldeekin dantzatzeko aukera izan dute ibar-tarrek.

Uztailearen 2an Mariborreko alkateak ongi etorria egin zien talde guztiei, eta Alurreko bi dantzari Aurrekua dantzatu zioten txistuaren soinuaren laguntzaz. Ondoren emanaldi ezberdinak egin ziren hirian zehar. Lent Festibala amaitzeko azken eguneko emanaldia azpimarratzen dute Alurreko kideek, bertan Ibarako Dantza Taldeak emanaldiari hasiera eta bukaera emateko aukera izan baitzuten. «Gure dantzek oso harrera



Txontxo Ludotekarako aurre matrikula zabalik

Ibarra » Uztailearen 14tik 22ra bitarte izena eman ahal izango dute 2-8 urte bitarteko haurren gurasoek Ludoteka zerbitzurako.

A. IMAZ

Txontxo Ludotekarako aurre matrikularen epea hilaren 14ean, etzi, zabalduko dute hilaren 22ra bitarte.

2008-2009 ikasturterako Txontxo Ludotekak 2-8 urte bitarteko haurrei zuzenduriko zerbitzua eskainiko du. Haur kopurua mugatua izango da: 40koa hain zuzen ere. Arduradunek azaldu dutenez, «izen ematen duten guztien artean lehenetasun mailak honela izango dira: 1. Uzturne Ikastolako haurrek eta 2. Ibarako haurrek. Horretaz gain, jakinarazi nahi dugu, haur kopurua 40tik pasako balitz

izen-emate hurrenkera errespetatuko dela. Behin betiko zerrenda osatzen dugunean, izena emateko informazio guztia eskainiko zaie zerrenda barruan geratu direnei».

Aurre matrikula non eta noiz

Aurre matrikula Uzturne Ikastolako idazkaritzan bertan edo telefonoz egin ahal izango da, uztailearen 14tik 22ra. Ordutegia 09:00 etatik 14:00ak artekoa izango da.

Txontxo Ludotekak berriz 2-8 urte bitarteko haurrei zuzenduriko zerbitzua eskainiko du astelehenera ostiralera. 16:30etik 19:30ak bitarteko ordutegia izango du eta ikasturte osorako kuota senide bakoitzeko 152,60 eurokoa izango da. Bi senide edo gehiagoren kasuan 114,45 euro ordaindu beharko dira.

Edozein zalantza izanez gero, Uzturne Ikastolara deitu behar da, 943 67 12 99 zenbakira.



Patxi Zeberio txapel berri bat irabaz dezake gaur Huarren. JOSEBA ZABALZA

Elduaingo Patxi Zeberio gaur jokatuko du finala

A. IMAZ

Patxi Zeberio gaur jokatuko du erremonteko San Fermin Torneoaren finala Huarterako Euskal Jai Berri pilotalekuan 16:00etan hasi-

ko den jaialdian. Elduaindarrak Julien San Miguel atzelaria izango du lagun eta etsai bezala Ezkurra eta Aizpuru. Partidua 40 tantura jokatuko da.

Finalerdietan egurra

Sandua Olioak edo San Fermin Torneoan Zeberio II.a eta San Miguel oso indartsu agertu dira orain artean. Ligaxkan bi partidak erraz irabazi zituzten eta finalerdietan Urriaza eta Urrutiak 26ean utzi zituzten. Arerio zailak izango dituzte ordea gaur finalean. Patxi Zeberioaren adixkide eta aurrelari bikaina, Ezkurra, izango du aurrean elduaindarrak. Hauek finalerdietan 36ean utzi zituzten Uterga eta Lizaso.

Finala 16:00etan hasiko den jaialdiaren barnean jokatuko da.


Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Txakurkumeak.** Txakurkumeak oparitzen dira, bi hilabetekoak. 645 70 68 21.

■ **Desguazadora.** Desguazadora eta zaldi pertxeroia salgai. 943 69 00 72.

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu: 657 23 00 11/634 91 94 82.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN
PROBIGURRAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



Mujika erail zuten lekua. N. GARZIA

Jose Javier Mujikari omenaldia egingen diote, etzi, 19:15ean

Leitza » Lore-sorta bat jarriko dute ETAk duela zazpi urte erail zuen lekuan eta ondoren meza eskainiko diote.

ERREDAKZIOA

Astelehenean 7 urte egingen ditu ETAk Jose Javier Mujika erail zuela eta hori dela eta omenaldia egingen diote.

Omenaldia 19:15ean hasiko da, eta urtero bezala, erail zuten lekuan lore sorta bat jarriko dute, bere omenez jarri zuten plakaren azpian. Ondoren, 20:00etan, herriko elizan eukaristia egingen dute

Jose txo Urrutia bigarren Nafarroako Harri-jasotze Txapelketan

Leitza » Unai Bertizek irabazi zuen eta 100 kiloko alde atera zion leitzarrari eta 16 jasoaldi egin zituen bizkaitarrak.

ERREDAKZIOA

Herenegun jokatu zen Nafarroako Harri-jasotze Txapelketa, Iruñean, eta Unai Bertiz gazteak jan-tzi zuen txapela, 5.812,5 kilo bizkarreratutako baitzituen, eta 100 kiloko alde atera zion bigarren gelditu zen Jose txo Urrutia leitzarrari Beraz, jasoaldi bateko alde atera zion Bertizek Urrutiari; hain justu ere, 100 kiloko bolarekin egin zuen jasoaldi bat gehiago Bertizek.

Gainera, eztabaida sortu zen, izan ere, epaileak 100 kiloko bolarekin jasoaldi bat gutxiago eman zion Bertizek, eta bertan zen kamara bati esker baieztatutako ahal izan zuten Bertizek 16 jasoaldi egin zituela.



Pedro Jose Aizpuru eta Lazaro Zabala udaletxeko ganbaran. N. GARZIA

Udaletxeko erloju berria jarri dute eta transmisioa egin ondoren hasiko da martxan

Leitza » Barrutik argiak jarri dizkiote eta ordua markatzeko barruko makinariarekin transmisioa egitea besterik ez zaio falta.

NAIARA GARZIA

Udaletxeko erloju berriaren esfera jada jarri dute bere lekuan. Ordua oraindik ez du behar bezala markatzen, udaletxeko ganbaran dagoen makinariarekin transmisioa egiteko baitago. Argiak ere jarri dizkiote, gauzez ikus dadin.

Lazaro Zabala eta Pedro Jose Aizpuru aritu dira elkarrekin lanean, Zabala teiltatuaren gainean eta Aizpuru makina dagoen gelan, teiltatuaren azpian. «Armazoiak aspaldi ekarri zuten, baina pintatu ere egin behar zen, eta kristala jarri», dio Zabalak. Teiltatu gainean dagoen erlojuari dagokionez, ezkila ere moldatu egin dute. «Goma batzuk jarri dizkiogu, ezkilak jartzeko garaian oihartzuna egin dezan». Hemendik aurrera, ziurrenik urte askoan ez du konponketarik beharko. «Ez dut uste niri berriro tokatuko zaidanik», dio Zabalak, «herdoilezina baita, lehenago burnizkoa zen eta erabat herdoilduta zegoen, bazterretatik herdoilak jana, erortzeko puntuan. Nik uste kasualitatez justu aldatu dugula, denbora gutxira erori egingen zen hor utzi izan bagenu».

Udaletxeko ganbaran dagoen makinariak bere erritmoa darma eta orduak behar bezala markatzen ditu, orain transmisioa egitea besterik ez da falta. Orduan, hori



Udaletxeko erloju berria, herenegun jarri ostean. N. GARZIA

amaitzean, makinariako erlojuaren ikusten dena ikusi ahaliko dute herriarrek kanpoko esferan, hau da, ordua behar den bezala. Noiz amaituko duten ez dakite, Aizpuru azaldu duenez, «jartzeko zozak heinean ikusten duzu zenbat akats daukazun, eta orduan akats horiek soluzionatu behar dira».

Fisika hutsa

Ganbaran dagoen makinariari es-talpe bat egin diote, hautsak berri-ro hartu ez dezan. «Orain estalpe bat egingen ari gara, bestela beti hautsa biltzen baita hemen. Hon-ek beti engrasatuta egon beharra du, ginetik hautsa erortzen ba-zaio, grasarekin lokatza bihurtzen da eta hortzen artean sartzen bada ez du funtzionatzen». Aurrera be-gira, astero giltza eman behar zaio-la dio Aizpuru. «Behar bada siste-ma elektriko jarriko dut, horretar-ako zenbait gauza aldatu behar zaizkio, baina ikusiko dugu».

Duela urtebete hasi zen erloju-a aztertzen Aizpuru eta otsailaren 7an hasi zen hortzak txukuntzen. «Sorok esanda etorri nintzen, nik etxean bai baitauzkat erloju mor-doxka bat eta esan zidan ea uda-letxeko erlojuari begiratu bat eman-nen nion. Eta horrela hasi ginen. Makinaria pixkanaka garbitu dut, hortzaz hortza. Garbitu nuenean martxan jarri nuen ikusteko nola zegoen, eta orduan arazoak atera ziren: torlojuak falta ziren, zenbait pieza buruz behera zeuden... baina martxan jartzearekin ikusi nuen ongi zebilela, soinu majoa zuela, ez zirudien gaizki tratatua izan ze-nik». Makinariak 60 urtekin gora daramazki ganbaran, lehenago beste makina bat zegoen, txiki-a-goa. «Nik 7 urte nituela hemen izan nintzen eta makinaria zahar-ra ezagutu nuen. Nire etxean ego-ten zen gure lehengusu bat, Urbie-tako Martin, guarda zen eta hark ematen zion noizean behin giltza eta berarekin etortzen nintzen or-duan». Aizpuruaren usten, makina-riaren funtzionamendua ulertzea ekuazio baten soluzio bat bilatzea bezala da. «Hau fisika hutsa da, he-men ez dago elektronikarik».

Donostia aldeko komunikazio enpresa batek ZUZENDARIA behar du

Eskaintzen da:

- Etorkizunean aukerak eskaintzen dituen lanpostua.
- Laneko kontratua.
- Soldata finkoa.

Eskatzen da:

- Kazetaritza edota euskal filologia ikasketakoa izatea.
- Euskaraz zuzen idazteko eta testuak zuzentzeko gai izatea.
- Isuera dinamikoak izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza ez eslemtua izatea.
- Donostiara edo ingurukoak izatea.
- Quark Xpress programa menderatzea.

Curriculum Vitae xehatua bidali abuztuaren 10erako.
gizabaliabideak@jarduna.net

Bidaia Agentzia bidaide



Erniobera, 6 behea • VILLABONA • 943 69 26 93

ARAMBURU

Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin. 4.000m², guztiz eraberritua.

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan. (231.400€ / 38.500.000 pztza)

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean, 1. llogailarekin sartzeko moduan eta bestea eraberritzeko eta igogailurik gabe. (193.000€ / 32.000.000pztza negoziagarriak)

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Martin Jose Iraola kalean, Salgai (Ibarr). Etxebizitza, San Ignazio auzoan, sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000pztza)

Salgai (Tolosa). Izaskun auzoan. (234.400€ / 39.000.000pztza)

Salgai (Villabona). Etxebizitza, guztiz eraberritua, Amasan.

Salgai (Legorreta). Etxebizitza eraberritzeko, Salgai (Ibarr).

Lokala. Euskal Herria kalean.

Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Amatorzen (Tolosa) eta Idoigan (Ibarr).

Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdiguinean.

Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza, lurre auzoan eta San Frantziskon.

Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batxilerr Zaldibian.

Alokatzeko (Ibarr). Pabillio industriala, Leaburuko bidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16



18°
13°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 19°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Alegia.** Intxurre futbol taldeak antolatuta, Elorri pilotalekuan, V. Garagardo Festa izango da 19:00etatik aurrera, goizaldera arte. Ukondoa, saltxitxak, gazta eta postrea izango dira jateko eta 9 garagardo desberdin edateko.

Kirola

■ **Tolosa.** Euskal Herriko I. Dardo Txapelketa Beotibar pilotalekuan. Gaur taldea ariko dira, 10:00etan, 15:00etan eta 18:00etan.

Ikus-entzunezkoak

■ **Alegia.** 40 minutuko AHTri buruzko proiektzioak izango dira Kultur Etxean, etengabe, 19:00etatik 22:00etara.

Deialdiak

■ **Aiztondo.** Aiztondo mankomunitateak eskualdeko jubilatuen bazkaria antolatu du hilaren 20rako. Izen-ematea, 943 60 39 30 zenbakian.
■ **Anoeta.** Promozioko bidaia egingo dute Alkartasuna Biltokikoek Briones herrira, Errioxan, hilaren 22an, upategi bat bisitatzu. Izen-ematea, Biltokian 18:00etatik 20:00etara, 10 eurotan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1. 943 67 36 49.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iriztien erantzunikunik.



«Topa dezagun V. Zerbeza Festan»

ALEGIA ■ Alegiako V. Zerbeza Festako atea atzo ireki zituzten Elorri pilotalekuan. Intxurre Futbol taldeak antolatuta da eta bertan 9 zerbeza desberdin edan daitezke. Atzo ireki zuten eta gaur ere izango da zer edan eta zer jan, afaltzeko aukera paregabea baitago bertan. 19:00etatik aurrera eta asperatu arte, musika, garagardo, janaria eta giro bikaina ziurtatuta daude. Kultur Etxean, berriz, 19:00etatik 22:00etara Alegiako AHT Gelditu! Elkarlanak AHTri buruzko proiektzioak antolatu ditu. 40 minutu inguruak dira, eta informazioa ematen da proiektu honen inguruan. Esan bezala, gaur ere izango da aukera gehiago informatzeko, V. Garagardo Azokaren baitan. **N. URBIZU**

A Agurrak



Urte askoan!

Aitor.

Muxu bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Aiort (Villabona).

Gaur urteak. Zorionak familiaia ta maite zaitugunon partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Hartu udako olatua
Musikarik eta argazkirik onenak,

29° 0° 39° 0°

2007 ERICSSON NOKIA 3230 NOKIA 3230

Dabari S.A.
Sari Francisco s/g, Tolosa
943 698 128

Berretsiak Oliniako
euskaltel